# [Cast/Eusk] Ante el acuerdo firmado en la Audiencia Nacional española

MOVIMIENTO PRO AMNISTÍA Y CONTRA LA REPRESIÓN :: 16/09/2019

El mencionado acuerdo, acarrea consecuencias políticas graves para toda organización o militante que tenga intención de trabajar en torno a lxs represaliadxs políticxs

**Castellano**

Ante el acuerdo firmado hoy en la Audiencia Nacional española entre lxs acusadxs del caso 11/13 y la Fiscalía, así como con la AVT y DyJ, el Movimiento Pro Amnistía y Contra la Represión quiere expresar lo siguiente:

El 12 de abril mostramos mediante una nota de prensa nuestra solidaridad hacia las personas que iban a ser juzgadas en este proceso, y subrayamos la importancia política de este juicio. Denunciamos que este era un intento por borrar cualquier cosa que pudiera dar un mínimo de estabilidad a lxs presxs políticxs, y advertimos de que era otro paso para desvirtuar el conflicto por medio de la despolitización de estxs y poder llevar a cabo la asimilación de Euskal Herria sin oposición y con naturalidad.

(https://www.amnistiaaskatasuna.com/es/articulo/ante-el-juicio-contra-herrira)

Reconociendo que el encarcelamiento de cualquier persona se puede convertir en una tragedia personal, debemos decir que históricamente hemos entendido la cárcel como otro espacio de lucha. En la medida en que somos (y son) militantes políticxs, sabemos bien que las decisiones que tomamos en calidad de militantes, además de las consecuencias personales, también acarrean consecuencias políticas. El acuerdo firmado este 16 de septiembre puede aliviar la situación personal de lxs acusadxs, pero a nivel político solo podemos calificarlo de catastrófico.

La militancia política es una decisión libre y consciente a la que se puede renunciar cuando alguien alcanza su propio límite, es una actitud obligada tan solo por el compromiso personal. A nadie se le amenaza para empujarle a la lucha. De haber una amenaza, esa es la que los Estados nos lanzan para que nos quedemos en casa. Cuando alguien se ha cansado siempre se le ha dado la posibilidad de irse a casa, aunque nunca se ha presentado esto como el modelo a seguir.

El mencionado acuerdo, como decíamos al principio, acarrea consecuencias políticas graves para toda organización o militante que tenga intención de trabajar en torno a lxs represaliadxs políticxs. Es obligación de cualquier organización política que mantenga una actividad publica, defender la legitimidad (que no legalidad) de dicha actividad. Por el contrario, lo que ha hecho este acuerdo ha sido dar por buenas la criminalización y la persecución de esas organizaciones. Esto es más grave si tenemos en cuenta que muchxs de lxs acusadxs tenían cargos liberados, lo que conlleva aceptar de antemano determinados riesgos.

Quienes defienden los acuerdos como única vía para evitar la cárcel, olvidan que no hace tanto tiempo la organización Askapena decidió llevar a cabo una defensa política, y que además de ganar la libertad de los acusados, ganó el derecho de Askapena a existir, también a los ojos del enemigo. No son comparables los acuerdos alcanzados por otros militantes en otros juicios con los alcanzados en procesos de ilegalización de organizaciones de actuación pública, porque lo que se juzga en estos últimos es hasta el derecho a organizarse.

Con el acuerdo de hoy han aceptado que se castigue la defensa de los derechos de lxs represaliadxs políticxs, la defensa jurídica, la asistencia médica, el derecho de lxs familiares a organizarse y, en general, cualquier gesto de solidaridad. A esto deberíamos sumarle que no ha sido un simple acuerdo jurídico, sino que es un acuerdo con contenido político.

El grupo ultraderechista AVT, que se personaba como acusación particular, ha considerado muy positivo el acuerdo ya que, según ha dicho, “ha sido un importante logro para la construcción del relato”. Pero el mayor problema no es lo que a la AVT le guste o no, sino que la capacidad del lenguaje para desarrollar la ideología es tan grande que cada espacio perdido en la terminología se convierte en una nueva batalla ganada para los que tratan de asimilar a nuestro pueblo.

Aparte de todo esto, el acuerdo da facilidades a la represión contra otrxs. Bajo la excusa de la libertad individual de cada unx, han permitido situar el listón de la represión en otro nivel, y el acoso contra las organizaciones que quieran continuar llevando a cabo un trabajo político ha encontrado nuevos resquicios para poder seguir aumentando la violencia estructural. Ya hemos dicho más veces que la amenaza represiva no nos va a hacer desviarnos de nuestro camino, pero es algo que queremos volver a reafirmar.

Para terminar, queremos denunciar el fraude realizado durante tantos meses hacia la gente de buena voluntad. Quienes han sacado adelante la campaña a favor de los imputados no han actuado con sinceridad hacia el pueblo. En la misma época en la que estrechaban la mano de la Fiscalía, han estado pidiendo solidaridad y ayuda de cara a un juicio de largos meses que no iba a existir. El 14 de septiembre llevaron a cabo una manifestación gigante, y esto nos lleva a hacernos una reflexión. ¿Para qué sirve reunir a tanta gente cuando no tienes voluntad de llevar a cabo ningún cambio cualitativo? Para eso mismo, para mantener las cosas como están.

En Euskal Herria, a 16 de septiembre de 2019.

**Movimiento Pro Amnistía y Contra la Represión.**

**Euskera**

Gaur bertan 11/13 auziko akusatuek Fiskaltzarekin zein AVT eta DyJrekin ere Espainiako Audientzia espainolean sinatutako akordioaren aurrean, Amnistiaren Aldeko eta Errepresioaren Aurkako Mugimenduak honakoa adierazi nahi du:

Apirilaren 12an gure elkartasuna adierazi genien prentsa ohar baten bidez prozedura honetan epaitzera zihoazen pertsonei, eta epaiketa honek zeukan garrantzi politikoa

azpimarratu genuen. Preso politikoei egonkortasun minimo bat eman liezaiekeen edozer ezabatzeko saiakera zela salatu genuen, eta hauen despolitizazioaren bidez gatazka desitxuratzea eta Euskal Herriaren asimilazioa aurkakotasunik gabe eta naturaltasunez burutu ahal izateko beste urrats bat zela ohartarazi genuen.

(https://www.amnistiaaskatasuna.com/eu/artikulua/herrira-antolakundearen-aurkako-epaiketaren-aurrean).

Edozein gizakiaren kartzelatzea tragedia pertsonala bihur daitekeela onartuta ere, esan behar dugu kartzela beste borroka esparrutzat hartu dugula historikoki. Militante politikoak garen (eta diren) heinean, militante gisa hartzen ditugun erabakiek, ondorio pertsonalez gain, ondorio politikoak ere izan ditzaketela jakin badakigu. Irailaren 16 honetan sinatutako akordioak akusatuen egoera pertsonala arindu dezake, baina maila politikoan katastrofikotzat baino ezin dugu kalifikatu.

Militantzia politikoa erabaki libre eta kontzientea da, edozein momentutan bertan behera utz daitekeena norbait bere mugara iristen denean, zapalkuntza egoera baten aurrean norberaren konpromisoak behartutako jarrera bat da. Inori ez zaio mehatxu egiten borrokara bultzatzeko. Mehatxurik egitekotan, Estatuek etxean geldi gaitezen egiten digutena da. Norbait nekatuta egonez gero beti utzi zaio etxera joateko aukera, nahiz eta inoiz ez den egin beharrekoaren eredutzat jarri.

Aipatutako akordio honek, lehen esaten genuen moduan, ondorio politiko larriak dakartza errepresaliatuen inguruan lan egiteko borondatea daukan antolakunde zein militante ororentzat. Jarduera publikoa mantentzen duen edozein antolakunde politikoaren betebeharra da jarduera horren zilegitasuna (ez legezkotasuna) defendatzea. Akordio honek egin duena, kontrara, antolakunde horien kriminalizazioa eta jazarpena ontzat ematea izan da. Larriagoa da oraindik kontutan hartzen badugu akusatuetako asko kargu liberatuak izan dituztela, horrek aldez aurretik zenbait arrisku onartzea dakarrelarik.

Kartzelara ez joateko bide bakartzat akordioak defendatzen dituztenek, ahaztu egin dute Askapena antolakundeak defentsa politikoa egitea erabaki zuela orain dela ez hainbeste, eta akusatuen askatasuna irabazteaz gain, Askapenaren existitzeko eskubidea irabazi zuela etsaiaren begietara ere. Beste militante batzuek beste epaiketa batzuetan lortutako akordioak ezin dira konparatu jarduera publikoa mantentzen zuten antolakundeen legez kanporatzeko prozesuetan hartutakoekin, azkenengoetan epaitzen ari direna antolatzeko eskubidea bera delako.

Gaurko akordioan errepresaliatu politikoen eskubideen aldeko defentsa, defentsa juridikoa, asistentzia medikua, senideen antolatzeko eskubidea eta, oro har, edozein elkartasun keinua zigortzea ontzat eman dute. Honi gehitu beharko genioke ez dela akordio juridiko hutsa izan, baizik eta eragin politikoa daukan akordioa izan dela.

Akusazio partikular gisa aurkezten zen AVT talde ultraeskuindarrak oso positibotzat jo du akordioa, bere esanetan haien “kontakizunaren eraikuntzarako lorpen garrantzitsua” izan delako. Baina arazorik handiena ez da AVTri zer gustatzen zaion eta zer ez, baizik eta lengoaiak ideologia garatzeko orduan daukan gaitasuna hain handia dela, terminologian galdutako espazio bakoitza gure herriaren asimilazioa bultzatzen dutenen irabazitako

bataila berria bihurtzen dela.

Honetaz guztiaz aparte, akordioak beste batzuen kontrako errepresioari erraztasunak ematen dizkio. Norberaren askatasun indibidualaren aitzakiapean, errepresioaren langa beste maila batean jartzea ahalbidetu dute eta lan politikoa egiten jarraitu nahi duten erakundeen kontrako jazarpenak zirrikitu berriak aurkitu ditu biolentzia estrukturala areagotzen jarraitzeko. Gehiagotan esan dugu errepresioaren mehatxuak ez gaituela gure bidetik desbideratuko, baina beste behin ere berretsi nahi dugun zerbait da.

Bukatzeko, salatu egin nahi dugu hainbeste hilabetetan zehar borondate oneko jendeari egindako iruzurra. Auziperatuen aldeko kanpaina aurrera eraman dutenek ez dute herriarekiko zintzotasunez jokatu. Fiskaltzaren eskua estutzen zuten garai berean, Euskal Herriari existituko ez zen hilabete luzetako epaiketari begirako elkartasuna eta laguntza eskatzen aritu dira. Manifestazio erraldoia burutu zuten irailaren 14an, eta honek beste hausnarketa bat egitera eramaten gaitu. Zertarako balio du hainbeste jende biltzeak kualitatiboki aldaketarik emateko borondaterik ez duzunean? Horretarako hain zuzen ere, gauzak bere horretan mantentzeko.

Euskal Herria, 2019ko irailaren 16a.

**Amnistiaren Aldeko eta Errepresioaren Aurkako Mugimendua.**

---

*https://eh.lahaine.org/cast-eusk-ante-el-acuerdo*